

BARNE MERKATARITZAREN INDIZEA (BMI)- Txikizkako. 2012ko 4. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %4,2 jaitsi ziren 2012ko laugarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, salmentak %5,0 murriztu ziren

Eustatek emandako datuen arabera, 2012ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %4,2 murriztu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %5,0 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %2,8 nominala jaitsi da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. 4. hiruhilekoa. 2012(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	h / h-4	h / h-1	h / h-4	h / h-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-4,2	-2,8	-7,0	-3,1
Araba	-2,2	0,4	-5,4	-0,9
Bizkaia	-4,8	-3,5	-7,4	-3,3
Gipuzkoa	-4,3	-3,2	-7,0	-3,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-3,7	-1,6	-6,5	-2,5
Elikagaietan espezializatuta	-5,5	-0,6	-7,6	-1,1
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-2,8	-1,2	-5,6	-1,8
Beste produktuak	-6,0	-3,8	-8,0	-4,0
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-6,0	-0,8	-8,3	-2,0
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-11,2	-6,4	-11,7	-6,4
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-3,5	-3,2	-5,2	-1,9
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	0,8	1,2	-2,1	-0,8
Automoziorako erregaia	1,4	4,0	-5,3	0,8
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-5,0	-2,9	-7,4	-3,4
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-4,5	-0,7		

h / h-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

h / h-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien salmenta nominalak %3,7 murriztu ziren 2012ko laugarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %6,0 jaitsi ziren eta automobilgintzarako erregai-salmenta %1,4 igo, beti ere 2011ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %5,5 jaitsi zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %2,8. Gainerako produktuen txikizkakoan %0,8ko igoera dago gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan, eta indar ezberdinetako jaitsierak gainerako sektoreetan. Etxeko ekipamenduaren espezializatua %11,2ko jaitsiera; pertsonaren ekipamenduan %6,0koa; kontsumoko beste ondasunetan %3,5koa.

2012ko laugarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %4,8 murriztu dira Bizkaian urte artean, jaitsierarik handiena; Gipuzkoan %4,3 eta Araban %2,2.

Prezio finkoetan, alegia prezioen efekturik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %7,0 murriztu ziren laugarren hiruhilekoan

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %7,4ko jaitsiera erreala –prezio finkoetan- izan dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2012ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %3,1eko jaitsiera izan da hirugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaroteraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala %6,5 izan zen; gainerako produktuetan %8,0, 2011ko hiruhileko beraren aldean, eta automobilgintzarako erregai-salmentetan %5,3.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoak negatiboak izan dira bai espezializatuan %7,6, bai elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %5,6. Gainerako produktuen merkataritzan, jaitsierak sektore guztietan. Etxearen ekipamenduan %11,7ko jaitsiera; pertsonaren ekipamenduan %8,3koa; kontsumoko beste ondasunetan %5,2koa, eta beste produktuak nagusi diren ez-espezializatuen salmentetan %2,1koa, beti termino errealetan.

Hiru lurraldeetan izan ziren jaitsierak salmentetan termino errealetan: Bizkaian %7,4, Gipuzkoan %7,0, Araban %5,4.

Euskal AE osoan, 2012ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,7 murriztu zen 2012ko laugarren hiruhilekoan.

Urteko balantzea.

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %3,1eko jaitsiera nominal metatua izan dute. Gasolindegia sartu gabe, gainerako salmentetan %3,8ko jaitsiera dago 2012ko datu metatuetan 2011koen aldean.

Termino errealetan, sektorea osorik %5,3 jaitsi da eta gasolindegirik gabe %5,2.

Tasa nominaletan Araba jaitsi da gutxien, %1,4; Gipuzkoa %3,4 eta Bizkaia %3,5. Prezio finkoetan, gauza bera: Araban %4,5eko jaitsiera, Bizkaian %5,3koa eta Gipuzkoan %5,7koa.

2012an txikizkako merkataritzaren enplegu-galera aurreko urteko batez bestekoaren aldean %3,8 izan da Euskal AEn.

2. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	UNEKO PREZIOAK			PREZIO FINKOAK		
	2012	2011	Δ%	2012	2011	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera						
Euskal AE	95,8	98,9	-3,1	91,0	96,1	-5,3
Araba	99,1	100,5	-1,4	92,0	96,3	-4,5
Bizkaia	95,3	98,8	-3,5	91,4	96,5	-5,3
Gipuzkoa	95,0	98,3	-3,4	90,0	95,4	-5,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera						
Elikagaiak	97,2	99,2	-2,0	92,4	96,8	-4,5
Beste produktuak	92,1	97,1	-5,1	90,8	96,3	-5,7
Automozioko erregaia	109,8	107,0	2,6	86,6	91,8	-5,7
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	94,3	98,0	-3,8	91,5	96,5	-5,2
ENPLEGU INDIZEA						
Euskal AE	95,1	98,9	-3,8			

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua](#)